

Lehen sorospena azenarioarentzat


Zoragarria izango litzateke barazki zimel eta maskalei “biziaren musua” eman ahal izatea, ezta? Esperimentu honek horixe bera egiteko aukera ematen dizu, hau da, azenario zimel bati berriro “zutitu eta norbait izateko” aukera emateko, edo, gutxienez, apur bat solidoago sentiarazteko.

BEHARKO DUZU


- Zimeldutako azenario handi bat
- 300 ml-ko edalontzi garden bat
- Katilu txiki bat
- Plastikozko lasto garden bat (3 cm-ko luzera)
- 4 zotz
- 1 koilaratxo ur
- 1 koilaratxo azukre
- Plastilina

METODOA

1. Bete edalontzia urez; $\frac{3}{4}$, gutxi gorabehera.
2. Hustu azenarioaren goialdea (1 cm-ko zabalera eta 1-1,5 cm-ko sakonera, gutxi gorabehera).
3. Sartu lastoa zulo horretan eta zigilatu ertza plastilinarekin.
4. Ziztatu zotzak distantzia berera azenarioaren alboetan, goialdearen inguruan, eta pausatu zotzak edalontziaren ertzean, azenarioa ia erabat urpean uzteko.
5. Nahasi azukrea ur-kantitate berarekin katilu txikian eta bete lastoa (azenariotik kanpora ateratzen da lastoaren muturra), erdiraino gutxi gorabehera.



6. Ordu bat edo bi igaro ondoren, lastoko ur-maila igo egin dela ikusiko duzu.



ZIENTZIA-AITZAKIA

Esperimentu hau osmosi izeneko prozesuari buruzkoa da. Ura landarezelulen paretetan zehar igarotzen da landarea ur-kontzentrazio handiko ingurune batetik kontzentrazio txikiagoko beste ingurune batera igarotzen denean. Kasu honetan, indarra ematen dion ur gehiena galdu duelako zimeldu da azenarioa. Edalontziaren barnean, ordea, inguruko ura xurgatzen du, eta zurrunago bihurtzen da. Hazten ari den azenario batean, uraren parte bat gorantz bideratuko litzateke; lastoa neurgailu gisa erabilia, ur-mailaren igoera ikus dezakegu.

KONTUZ!

Esperimentu honek ez du arriskurik. Nolanahi ere, lastoan azukre-soluzioa erabili behar duzu: ur arrunta lurrundu egin liteke.